

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Lea Artibaiko Amankomunazgoa****Lea Artibaiko Amankomunazgoan Etxeko Laguntza Zerbitzuko langileak kontratazeko oinarriak.**

Lea Artibai Amankomunazgoko Batzar Nagusiak, 2021eko azaroaren 5ean egindako Batzar Orokorrean, beste batzuen artean ondorengo erabaki hau hartu zuen:

Lea Artibai Amankomunazgorako Etxeko Laguntza Zerbitzuko Laguntzaile plaza (5 lanpostu) oposaketa-lehiaketa bidez betetzeko oinarriak onartzea:

Markina-Xemein, 2021eko azaroaren 29an.—Lea Artibai Amankomunazgoko lehen-dakaria, Koldobika Goitia Markuerkiaga

**LEA ARTIBAI AMANKOMUNAZGOAN ETXEKO LAGUNTZA
ZERBITZUKO LANGILEAK KONTRATATZEKO OINARRIAK****Lehenengoa. — Deialdiaren helburua**

Deialdi honen helburua da lehiaketa-oposizio sistemaren bidez hautaketa-probeta-rako deialdia egitea, Lea Artibai Amankomunazgoko Etxeko Laguntza Zerbitzuan behin betiko lan-kontratuko bost plaza betetzeko, deialdiaren oinarri berezietan (eranskinetan) ezarritako baldintzekin.

Berariaz adierazten da Epaimahaiak aukeratutako hautagai-kopurua ez dela deituta-kopurua baino handiagoa izango.

Halaber, plaza lortzen ez duten hautagaiak Etxeko Laguntza Zerbitzuko Lan-poltsan sartuko dira. Lan-poltsa hau Etxeko Laguntza Zerbitzuan langileen behin-behineko pre-miak betetzeko erabiliko da, Amankomunazgoak onartutako funtzionamendu-arauen arabera. Lan-poltsa hau beste administrazio batzuei eman ahal izango zaie.

Bigarrena. — Hautagaiak bete beharreko baldintzak

Hautaketa-prozesuetan parte hartzeko, nahitaezkoa izango da:

- a) Europar Batasunaren kide den estatuetako bateko nazionalitatea izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Estatu Espainiarrak berretsitako nazioarteko tratatuei jarraiki, langileen zirkulazio askea ezarri ahal zaion estatuetako bateko nazionalitatea izatea.

Era berean, Europar Batasuneko nazionalitatea duen pertsonaren ezkontideak ere parte hartu ahal izango du, baldin eta zuzenbidez banandurik ez badago. Halaber, Europar Batasuneko nazionalitatea duen pertsonaren ondorengoek eta bere ezkontidearenek ere esku hartu ahal izango dute, ezkontideak zuzenbidez banandurik ez badaude eta ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izanda ere gurasoen kontura bizi badira.

Orobat, aurreko paragrafoko egoeran ez dauden eta Estatu Espainiarrean bizi diren atzerritarrek parte hartu ahal izango dute. Horiek, lanpostuetarako hautatuak izanez gero, kontratua formalizatu aurretik, kontratuaren xede den jarduera egiteko administrazio-baimena dutela egiaztatu beharko dute.

- b) 16 urte beteta izatea, eta nahitaezko erretirorako adinera iritsi gabe egotea.
- c) Gaitz edo minusbaliotasun fisiko edota psikikorik ez izatea dagozkion zereginiei aurre egiteko.
- d) Diziplinako espediente bidez Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo Tokiko Administrazioetik baztertuta ez egotea.
- e) Deialdiaren oinarri berezietan adierazitako gidabaimena izatea.
- f) Ibilgailuaren erabilgarritasuna, erabiltzaileen etxeetara heltzeko premiazkoa de-nean hiri barruan bizi ez direlako.
- g) Menpekotasun egoeran daudenei arreta soziosanitarioa emateko teknikaria edo erdi mailako gradu baliokide den titulazioa:
 - Erizaintzako Zaintza Osagarrien Teknikaria (LOGSE).
 - Klinikako teknikari laguntzailea (LHI).
 - Psikiatriako teknikari laguntzailea (LHI).
 - Erizaintzako teknikari laguntzailea (LHI).
 - Menpekotasun-egoeran daudenei arreta emateko teknikaria (LOE).
 - Arreta soziosanitarioan teknikaria (LOGSE).
 - Gizarteratzeko goi mailako teknikaria, 2017ko abenduaren 30ean laguntzaile pertsonala edo etxeko laguntzaile kategorian lanean dabiltzanak.

Baldintza horiek guztiak, gehienez jota, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako beteta egon beharko dira, eta, jakina, kontratazioa egiten denerako ere bai. Salbuespenak, gidabaimena eta ibilgailuaren erabilgarritasuna izango dira, horiek kon-



tratazioa egiteko unean eduki beharko baitira (une horretan gidabaimenik ez badute edota ibilgailu erabilgarririk ez badute, lan-poltsatik kanpo geratuko dira). Halaber, dagokion eranskinean bestelakorik xedatzen ez bada, hautaketa-prozesu bakoitzaren eskakizun bereziak eskabideak aurkezteko epea bukatzen den unean bete beharko dira.

Hirugarrena. — Eskabideak nola aurkeztu

Hautagaiak hogeitun laneguneko epea izango dute hautaketa-prozesuan parte hartzeko behar diren agiriak aurkezteko, oinarrien laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita.

Eskabideak epe horretan eta Lea Artibai Amankomunazgoko Lehendakariari zuzenduta aurkeztuko dira, Erakundearen Erregistroan (Markina-Xemein, Patrokua Jauregia, Xemein etorbidea 13). Ordutegia honako hau da: 9:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, egun horiek lanegunak badira Lea Artibai Amankomunazgoarentzat. Honako agiri hauek aurkeztuko dira:

- 1) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia
- 2) Zinpeko aitortza, hautagaia kargu publikoak betetzeko gaitasunik gabe ez dagoela eta diziplinako espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik baztertuta ez dagoela aditzera ematen duena.
- 3) Zinpeko aitortza, hautagaia Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak ezarritako batezintasun-kausetan sartuta ez dagoela aditzera ematen duena.
- 4) Deialdian eskatutako baldintza orokor eta berezien (tituluak...) frogagiriak.
- 5) Alegatutako merituen zerrendaren adierazpena, eta meritu horien frogagiriak. Lehen adierazitako epean alegatutako eta egiaztatutako merituak hartuko dira aintzat, ez besterik. Epe horretan alegatu arren, geroago egiaztatu diren merituak ere ez dira kontuan hartuko.
- 6) Desgaitasuna duten pertsonen denbora, bitartekoak edo biak egokitu behar badituzte hautaketa-probak baldintza berdinetan egiteko, berariaz egin beharko dute eskaera eskabidean. Gainera, eskatutako egokitzapena egiaztatzen duen ziurtagiri medikoa aurkeztu beharko dute.

Halaber, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Laugarrena. — Hautagaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, Lea Artibai Amankomunazgoko Lehendakariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsi eta argitaratuko du Amankomunazgoaren iragarki-taulan eta web-orrian, egutegiko hamabost eguneko epean. Bazter utzitako hautagaiak hamar laneguneko epea izango dute, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik hasita, dauden akatsak zuzentzeko edota aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Epe hori bukatutakoan, Lea Artibai Amankomunazgoko Lehendakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi eta argitaratuko du. Ebazpen horren aurka, dagokion errekurtsioa jarri ahal izango da. Hautaprobak egiten diren egunetan, errekurtsioa ebatzi gabe badago, ukitutako hautagaiak azterketa egin ahal izango dute, baina azterketa horrek ez du baliorik izango errekurtsioa atzera botatzen badute.

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzen denean, oposizioaren lehen ariketa zein egunetan, zein ordutan eta zein lekutan egingo den adieraziko da, baita Epaimahai-kalifikatzaileko kideak nortzuk izango diren ere.

Bosgarrena. — Epaimahai-kalifikatzailea

Epaimahai-kalifikatzailea osatuko duten kide guztien izenak Lea Artibai Amankomunazgoaren iragarki-taulan argitaratuko dira, Lehendakariaren dekretuaren bidez.

Nolanahi ere, Epaimahaiak aholkulariak hartu ahal izango ditu, hautapoba guztietan edo batzuetan aritzeko. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira arituko.



Epaimahaiko kideek, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezarritako inguruabarretako bat gertatzen denean, uko egin beharko diote parte hartzeari eta Amankomunazgoko Lehendakaritzari eman beharko diote horren berri. Hautagaiek, aurreko artikuluan aipatutako inguruabarrenen bat gertatzen denean, kideak ezetsi ahal izango dituzte, Lege horrek 29. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, idazkariak izan ezik, honek ez baitu botoa emateko eskubiderik izango. Epaimahaiaren erabakiak bertaratutako botoen gehiengoak hartuko ditu, eta, berdinketa egonez gero, epaimahaiburu diharduenaren botoak erabakiko du.

Epaimahaia osatuko dute, gainera, erakundeko Lehendakaritzak hautaketa-prozesua hasi aurretik izendatzen dituen ordezkoeak.

Epaimahaiko kideen erdia baino gehiago bertaratzen ez bada –kide horiek titularrak edo ordezkoeak izan–, Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo du jardun.

Oinarri hauetan ezarri ez den guztirako, Epaimahaiak ahalmen osoa du sor daitezkeen zalantzak argitu, eta deialdiaren funtzionamendu egokia bermatzeko erabakiak hartzeko.

Berriaz besterik xedatzen ez bada, euskararen ezagutza neurtzeko hautaprobako epaimahaiko kideen osakerak ondorio horretarako baizik ez du baliorik izango.

Seigarrena. — Hautaketa prozesuaren hasiera eta garapena

Lea Artibai Amankomunazgoaren iragarki-taulan eta web orrian argitaratuko dira oposizioaren ariketak zein tokitan eta zein egunetan egingo diren.

Hautagaiei ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie. Bertaratzen ez direnak baztertuta geratuko dira; salbuespen izanik, horretarako funtsezko arrazoiren bat izatea, eta epaimahaiak aintzat hartzea.

Hautagaiek zein ordenatan arituko diren zozketa bidez ezarriko da. Zozketa hau hautagaien aurrean egingo da, bigarren ariketa egingo den egunean epaimahaiak ezarritako erara.

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, Epaimahaiak hautagaien batek deialdiko eskakizun guztiak betetzen ez dituela jakiten badu, interesdunari entzunaldia eginda, baztertu egingo du, eta, egun berean, hautaketa-prozesurako deialdia egin duen aginteari horren berri emango dio.

Zazpigarrena. — Hautaketa prozesua

Hautagaiak eranskinean adierazitako sistemaren bidez aukeratuko dira.

Oposizio-aldiko ariketa bakoitzaren eta, hala behar denean, lehiaketa-aldian hitzartutako merituen kalifikazioak jakiteko, Epaimahaiko kideek emandako puntuen batuketa egingo da, eta batuketaren guztizkoa kide-kopuruaren artean zatituko da. Koefiziente hori hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa izango da.

Sailkapen-ordena jakiteko, oposizio-aldian lortutako puntuazioen batuketa hartuko da kontuan (ariketa bakoitzaren puntuazioen batuketa), eta, hala dagokionean, baita lehiaketa-aldian lortutakoena ere (meritu bakoitzaren puntuazioen batuketa).

Berdinketa egonez gero, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan, hurrenez hurren, ordena finkatze aldera: lehenik, oposizio-aldian puntu gehien lortu duena; bigarren, laugarren ariketan puntu gehien lortu duena; hirugarren, Toki Administrazioaren zerbitzuan denbora gehien eman duena; laugarren, enpresa pribatuetan denbora gehien eman duena; eta, bosgarren, zozketa egingo da epaimahaiak ezarritakoaren arabera.

Ariketen puntuazioa erabakitzen den egunean bertan emango da aditzera.

Zortzigarrena. — Hautaketa prozesuaren emaitzak

Hautagaien kalifikazioarekin bukatutakoan Epaimahaiak kontratazio-proposamena, kalifikazioen arabera ordenatuta, bidaliko dio Lea Artibai Amankomunazgoko Lehendakaritzari.

**Bederatzigarrena. — Gorabeherak**

Oinarri honetan xedatu ez den guztiari dagokionez, Epaimahaiak ahalmena du sortzen diren zalantzak argitzeko eta hartu beharreko erabakiak hartzeko hautaketa-prozesua behar bezala egite aldera.

Interesdunek deialdia bera, deialdiaren oinarriak, eta hortik eta Epaimahaiaren jardueratik sortutako administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legeak ezarritako kasuetan eta eran.

Oinarri hauek ezartzen ez dutenari dagokionez, honako hauek egongo dira indarrean: Estatuko Administrazioaren zerbitzuko Langileen Sarrerarako Araudi Orokorra, Toki Jaurpidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea, apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretua, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legea eta ezarri ahal diren gainerako xedapenak.

Otsailaren 10eko 352/86 Errege Dekretuak 5.1. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legeak Zazpigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren babesean, Epaimahaiak ahalmena du deialdi honetako hautaprobak egoki irizten duen moduan egokitzeko, bai denborari bai baliabideei dagokienez, baldin eta hautagaien bat elbarria bada eta eskabidean horrela adierazi badu, eta, halaber, era horretan probaren edukia indargabetzen ez bada eta bertan eskatu beharreko gaitasun-maila gutxitzen edo urritzen ez bada.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 45.1.b) artikulua xedatutakoaren ondorioetarako, hautaketa-prozeduratik eratortzen diren administrazio egintzak Amankomunazgoko web orrian argitaratuko dira. Horrek jakinarazpena ordeztuko du eta ondorio berak izango ditu.

Oposaketa aldiko ariketak egiteko ordena aldatu ahal izango da proba bakoitza egiteko deituriko hautagai kopuruaren arabera eta IVAPEk hautaketa prozesuetan hizkuntza eskakizunen azterketak egiteko deialdi bateratueterako ezarriko duen egutegiaren baitan. Halaber, ariketa bat baino gehiago batera egitea erabaki daiteke. Kasu horretan, aurreko ariketa gainditu dituztenen ariketak bakarrik baloratuko dira.

Hautaprobak egitean aukera-berdintasuna eta tratua bermatzeko, epaimahai kalifikatzaileak probak egiteko datak edo lekuak egokitu ahal izango ditu, haurdun egoteagatik edo erditze aurreko edo ondorengo aldian egoteagatik hala behar duten emakumeen kasuan, baldin eta inguruabar horiek epaimahai kalifikatzaileari jakinarazten bazaizkio proba edo ariketa egin aurretik, eta medikuaren ziurtagiriaren bidez egiaztatzen bada.

Izangaiek identifikatzeko NAN eraman beharko dute probetara, edo horren baliokidea den identitatea egiaztatzeko dokumentu ofizial bat.

Hamargarrena. — Agiriak nola aurkeztu

Hautaketa-prozesuan plaza lortu duten hautagaien izendapena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hori alde batera utzita, proposatutako hautagaiek deialdi honetan eskatutako baldintzen egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte Lea Artibai Amankomunazgoaren Idazkari-tzan, 20 laneguneko epearen barruan, behin betiko kalifikazioen zerrenda argitaratu eta biharamunetik hasita, lehenago aurkeztu ez baditu; agiriok honako hauek dira:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua.
- Aurkeztutako titulazioaren fotokopia konpultsatua.
- Gidatzeko baimenaren fotokopia konpultsatua.
- Zinpeko aitortpena, hautagaia diziplinako espediente bidez administrazio publikoren batetik baztertuta ez dagoela, eta Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak eta Estatuko Administrazioaren zerbitzutan diharduten langileei ezarri ahal zaizkien bateraezintasunen gaineko apirilaren 30eko 598/85 Errege Dekretuak ezarritako ezgaitasun-eta bateraezintasun-kausetan erori ez dela aditzaera ematen duena.



— Lea Artibai Amankomunazgoak izendatutako zerbitzu medikuak luzatutako ziurtagiria, hautagaiak dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzeko gaitz edota akats fisiko zein psikikorik ez duela egiaztatzen duena.

Aipatutako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, hautagaiak deialdian eskatzen diren baldintzen agiriak aurkezten ez baditu, edota agiri horiek aztertuta baldintzaren bat betetzen ez duela ikusten bada, kontratua ezin izango da formalizatu, eta jarduera guztiak deuseztatuko dira, betiere, eskabidean gezurra esateagatik sor daitkeen erantzukizunaren kalterik gabe. Kasua hori balitz, organo eskudunak hautaketa-prozesua gainditu eta azken puntuazio-ordenari jarraiki hurrengo tokia betetzen duen hautagaiaren aldeko izendapena egingo luke.

Epaimahaiak kontratatzeko proposatu dituenen artetik Lea Artibai Amankomunazgoko Lehendakartzak izendatutako langileek, puntuazioaren hurrenkerari jarraiki, Lea Artibai Amankomunazgoak eskainitako bost plazetatik bat hautatuko dute.

Langile horiek Lea Artibai Amankomunazgoko langileak izango dira beti, eta ez zerbitzua egiten duten udalerriko udal-langileak. Edozein unetan, zerbitzuaren premiak dirrela-eta horrela behar denean, langile horiek Lea Artibai Amankomunazgoko kide den eta Etxeko Laguntza Zerbitzua mankomunatuta duen beste udalerrri batera lekualdatu ahal izango dira, betiere, Lea Artibai Amankomunazgoko teknikariek udalerrri baten eta bestearen zerbitzu-premiak justifikatu ondoren.

Hamaikagarrena. — *Praktikaldia*

2. hilabeteko praktikaldia ezartzen da, kontratua sinatu ondoren hasita.

Epe honetan aztertuko da hautagaiaren egokitasuna lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzerakoan. Horretarako, hautagaiak lehenengo lana egingo duen udalerriko Gizarte Langilea izendatuko da tutorea, zeinek jakinaraziko dio kasu bakoitzeko zereginak.

2. hilabeteko epealdi hau bukatu baino lehen, lan egiten duen udalerriko Gizarte Langileak txostena aurkeztu beharko du hautagaiak lanpostuaren eginkizunak betetzeko egokitasunari buruzkoa. Horren ondoren, Lea Artibai Amankomunazgoko Lehendakartzak kontratuarekin jarraitzeko aldeko edo kontrako erabakia hartuko du eta horrela ezarriko du lanpostuaren finkotasuna.

Hamabigarrena. — *Datu pertsonalen babesa*

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko ditu Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 lege Organikoa eta aplikagarri diren bestelako arauak. Datu pertsonalak hautapen prozesuan parte hartzeko eskaerak kudeatzeko ez besterako erabiliko dira.

Era berean, parte hartzeko eskabidean, izangaien berariazko baimena beharko da datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzea onartzeko, oinarrietan aurreikusitako ondorioetarako. Datu-lagapen horren helburu bakarra eta eskusiboa izango da beste administrazio publiko horien enplegu-eskaintzak jaso ahal izatea, lege aurreikusitako baldintzetan. Izangaiak berariaz onartzen ez badu, lagapen horren aurka dagoela ulertuko da.

Hizkuntza eskakizunei edo haien baliokideei buruzkoak IVAPeri emango zaizkio, alegatutako egiaztapen datuak hizkuntza eskakizun egiaztatuen erregistroan agertzen diren ala ez ikusteko eta hautaketa prozesuaren hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko ariketa behar bezala prestatu eta egiteko.

Izangaiak emandako datu pertsonalak «Giza Baliabideak» izeneko tratamendu jarduerara ekarriko dira. Tratamenduaren arduraduna Lea Artibai Amankomunazgoa da. Datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera dago, eta horretarako, idatzia bidali behar da Lea Artibai Amankomunazgora, Xemein Etorbidea, 13, 48270-Markina-Xemein.

**I. ERANSKINA****1. Deialdiko plazak**

Etxeko laguntzaileak, bost plaza, lan-erregimen finkokoak eta lanaldi partzialekoak (lanaldiaren +/- %75), C2 taldeari dagokion kategoriakoak, 14 mailako destino-osagarria-ekin eta berariazko osagarria urtean 6.617,40€ (lanaldiaren %75). Behin betiko lanaldia Lea Artibai Amankomunazgoak ezartzen duena izango da, betiere udalerrri bakoitzeko Etxeko Laguntza Zerbitzuaren beharrei erantzunez. Goizez zein arratsaldez eman ahal izango da, lanaldi jarraituan edo zatituan.

Zerbitzua astelehenetik igandera eman ahal da, jaiegunak barne. Etxeko Laguntza Zerbitzua onuradun bakoitzaren etxean ematen da; beraz, Etxeko Laguntzailearen kontura izango da onuradunen etxeen arteko joan-etorriak eta Amankomunazgoak ordainduko dizkio lekualdaketa horiek, Lea Artibai Amankomunazgoko organo eskudunak ezarritako moduan.

Etxeko laguntzailearen berezko eginkizunak honako hauek dira:

1. Arreta pertsonala.
2. Etxeko arreta.
3. Etxeko edo familiako hezkuntza.
4. Gizarteratzea eta komunitate-integrazioa.

2. Berariazko betekizunak

- Menpekotasun egoeran daudenei arreta soziosanitarioa emateko teknikaria edo erdi mailako graduako baliokide den titulazioa:
 - Erizaintzako Zaintza Osagarrien Teknikaria (LOGSE).
 - Klinikako teknikari laguntzailea (LHI).
 - Psikiatriako teknikari laguntzailea (LHI).
 - Erizaintzako teknikari laguntzailea (LHI).
 - Menpekotasun-egoeran daudenei arreta emateko teknikaria (LOE).
 - Arreta soziosanitarioan teknikaria (LOGSE).
 - Gizarteratzeko goi mailako teknikaria, 2017ko abenduaren 30ean laguntzaile pertsonala edo etxeko laguntzaile kategorian lanean dabilzanak.
- B1 gidabaimena.
- Ibilgailuaren erabilgarritasuna.
- Euskararen 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea edo dagokion euskara-mailako proba gainditzea.

3. Epaimahai kalifikatzailea

- Epaimahaiburua: Elena Egia Solaun.
- Epaimahaikideak, hitzarekin eta botoarekin:
- Eli Burgoa Belaustegi.
 - Lea Artibai Amankomunazgoan Etxeko Laguntza Zerbitzua daraman Gizarte Langile bat, erakundeko lehendakariak izendatua.
 - Etxeko Laguntza Zerbitzuko bateko Etxeko Laguntzaile bat, erakundeko lehendakariak izendatua.
 - IVAPeko ordezkari bat.
 - IVAPeko ordezkari bat euskara-probarako.
 - Lea Artibai Amankomunazgoko lehendakariak izendatutako teknikariak, oposizio-faseko ariketa bakoitzerako egokitzen dituztenak.
 - Idazkaria: Lea Artibai Amankomunazgoko Zerbitzu Oorkorretako Goi Teknikaria.



4. Hautaketa-prozedura

Hautagaiak lehiaketa-oposizioaren sistemaren bidez aukeratuko dira.

Oposizio-Aldia

Honako ariketa hauek egingo dira:

Lehenengo ariketa (nahitaezkoa eta baztertzaila): Gai-zerrenda orokorra

idatzizko test proba izango da, eta gaitegi orokorreko ikasgaien zerrendako gaiei buruz. Proba honen puntuazioa 0 eta 5 puntu artekoa izango da. Gainditzeko puntu 2 lortu beharko dira.

Bigarren ariketa: ikasgai bereziak (nahitaezkoa da baina ez da baztertzaila)

Proba honek bi zati izango ditu: teorikoa eta praktikoa.

1. *Gaitegi espezifikoko gaiei buruzko proba teorikoa*: Izangaiek idatzizko proba bat egin beharko dute. Epaimahaiak erabakiko du probak egingo diren momentuan azterketa eredia zein izango den. Proba honen puntuazioa 0 eta 15 puntu artekoa izango da. Gainditzeko 6 puntu lortu beharko dira.
2. *Gaitegi espezifikoko gaiei buruzko proba praktikoa*: Izangaiek idatzizko proba bat egin beharko dute. Epaimahaiak onartutako gaitegi espezifikoko gai bat edo batzuei lotutako egoera praktikoa bat garatu beharko dute idatziz. Proba honen puntuazioa 0 eta 20 puntu artekoa izango da. Gainditzeko 10 puntu lortu beharko dira.

Hirugarren ariketa: Euskara (nahitaezkoa eta baztertzaila)

hautagaiak EUSKARAren 1. hizkuntza-eskakizuna dutela egiaztatu beharko dute edo, hala badagokio, hautaketa-prozesuan horretarako ezartzen den probara aurkeztu beharko dute. Hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzeak hautaketa-prozesutik kanpo utziko ditu izangaia.

Laugarren ariketa (nahitaezkoa eta baztertzaila)

Proba hau bi zatitan banatuko da:

1. *Nortasun-probak*: Hautagaiak idatzizko eta/edo ahozko proba bat egin beharko dute. Proba hori 0 eta 15 puntu arteko puntuatuko da, eta gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.
2. *Epaimahaiarekin edo epaimahaiak izendatutako pertsonarekin elkarrizketa*: epaimahaiak elkarrizketa bat egingo die izangaiei, eta hark egindako galderari emandako erantzunak baloratuko dira. Elkarrizketa hori 0 eta 15 puntu arteko puntuatuko da, eta gutxienez 5 puntu lortu behar dira.

Epaimahaiak erabakiko du bi proba horiek egun berean egingo diren, bata bestearen ondoren edo egun desberdinetan, lehen probaren (nortasun-probak) emaitzak argitaratu aurretik edo ondoren.

Oposizio-aldian lortutako puntuazioen batuketara ez da 70 puntutik gorakoa izango. Era berean, partehartzaileek, gutxienez, 28 puntu lortu beharko dituzte hautaketa-prozesuan aurrera egin ahal izateko eta lan-poltsako zerrendan sartzeko.

Lehiaketa-aldia

Izangaiek eskabideak aurkezteko epean aipatu eta behar bezala egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, puntuazio hauen arabera:

- a) Administrazio publikoetan, etxeko laguntzaile gisa edo antzeko lanpostuetan emandako zerbitzuengatik: 0,50 puntu hiruhileko bakoitzeko, 15 puntu gehienez. Administrazio Publikoak emandako ziurtagiriarekin egiaztatuko da, plazaren izena, taldea, azpitaldea edo lanbide-kategoria eta lan-harremanaren hasiera-eta amaiera-data zehaztuta. Lea Artibai Amankomunazgoan izan bada, nahikoa izango da alegazioa, eta erakundeak aurkeztuko du ziurtagiria.



- b) Enpresa pribatuetan etxeko laguntzailearen antzeko plazetan edo berdinetan emandako zerbitzuengatik: 0,2 puntu hiruhileko bakoitzeko, gehienez 12 puntu. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak (lan-bizitza) emandako ziurtagiriarekin eta enpresa kontratatzaileak emandako ziurtagiriarekin egiaztatuko da, plazaren izena, taldea eta azpitaldea edo lanbide-kategoria, lan-harremanaren hasiera-data eta amaiera-data zehaztuta. Azken ziurtagiri horren ordez, kontratuaren fotokopia aurkeztu ahal izango da.
- c) Plazarekin zerikusia duten eta erakunde ofizialek emandako ikastaroengatik, gehienez 4,5 puntu guztira, honela banatuta:
- 06-20 ordu arteko ikastaroak: puntu 1 ikastaro bakoitzeko.
 - 21-40 ordu arteko ikastaroak: 1,5 puntu ikastaro bakoitzeko.
 - 41-60 ordu arteko ikastaroak: 2 puntu ikastaro bakoitzeko.
 - 61-80 ordu arteko ikastaroak: 2,5 puntu ikastaro bakoitzeko.
 - 80 ordutik gorako ikastaroak: 3 puntu ikastaro bakoitzeko.

Prestakuntza-ikastaroei buruzko merezimendua egiaztatzeko ikastaroen iraupena zehaztu beharko da ordutan, bestela ez da onartuko.

Lehiaketaren aldian lortutako puntuen batuketa ez da 31,5 puntutik gorakoa izango.

**GAITEGIA****GAITEGI OROKORRA**

1. Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen, Apirilaren 2ko, 7/1985 Legea. IV titulua. Beste Toki Erakundeak.
2. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua: Abenduaren 18ko 3/1979 Lege organikoa. Atariko titulua.
3. Lea Artibai Amankomunazgoko Estatutuak. Xede orokorrak (1go artikulutik 3garrenera).
4. Lea Artibai Amankomunazgoko Estatutuak. Gobernu organoak (10garren artikulutik 18garrenera).
5. Lea Artibai Amankomunazgoko Estatutuak. Pertsonala (19. artikulua).

GAITEGI ESPEZIFIKOA

6. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua, urriaren 6ko 185/2015 Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuan. Definizioa eta helburua.
7. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua, urriaren 6ko 185/2015 Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuan. Atsedeen-zerbitzuaren, prestazioen eta hartzaileen modalitatea.
8. Lea Artibaiko Amankomunazgoaren erregelamenduko etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren titularrak.
9. Lea-Artibaiko Amankomunazgoaren araudi arautzaileko etxeko laguntzailearen eginkizunak.
10. Lea-Artibaiko Amankomunazgoaren araudi arautzaileko etxez etxeko laguntza-zerbitzutik kanpo utzitako zereginak.
11. Lea-Artibaiko Amankomunazgoa arautzen duen erregelamenduaren titularren eskubideak eta betebeharrak.
12. Gizarte Zerbitzuko profesionalen eskubideak eta Gizarte Zerbitzuko profesionalen betebeharrak (Gizarte Zerbitzuei buruzko, Abenduaren 5eko 12/2008 legearen 11 eta 12 artikulua).
13. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoa. Xedapen orokorrak (I. kapitulua).
14. 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa: xedapen orokorrak (I. titulua).
15. Pertsonaren garbitasunerako teknikak.
16. Dementzia duen pertsona batekin komunikatzeko gomendio orokorrak.
17. Titularrak mobilizatzeko, lekualdatzeko, edo bere tokian jartzeko teknikak.
18. Mendeko pertsonetikiko eta kolektiboetikiko gizarte esku-hartzearen printzipio etikoak.
19. Gizarte-harremanak errazteko teknikak, akonpainamendu-jarduerak.
20. Sekretu profesionala.